



LAUDIO IBAR NOBLEAREN UDALA

AYUNTAMIENTO DEL NOBLE VALLE DE
LLODIO

2010 / 8 AKTA

ACTA 8 / 2010

Bilera: Ohiko Osoko Batzarra.
Eguna: 2010-07-27
Ordua: 09:00 – 12:50
Tokia: Herriko Etxeko Bilkura Areto nagusia.

Sesión: Ordinaria de Pleno
Día: 27-07-2010
Hora: 09:00 – 12:50
Lugar: Salón Sesiones Municipal.

Bertaratuak:

Jon Karla Menoio Llano, Alkatea.
 Juan José Unzaga Bilbao, EAJko zinegotzia.
 Leire Orueta Bergara, EAJko zinegotzia.
 María Izaskun Arregi Zubiaur, EAJko zinegotzia.
 Izaskun Miñano Larrea, EAJko zinegotzia.
 Pedro María Isusi Camino, EAJko zinegotzia.
 Juan Antonio Bilbao Gallastegi, EAJko zinegotzia.
 Txaro Sarasua Diaz, PSE-EEko zinegotzia.
 Juan Ángel Gomez Calero, PSE-EEko zinegotzia.
 Paqui Macias Gonzalez, PSE-EEko zinegotzia.
 Carlos De Urquijo Valdivielso, PPko zinegotzia.
 Rosa Torres Corres, PPko zinegotzia.
 Peli Ortiz de Zarate Constenla, Atxiki Gabeko Kidea.
 Gaizka Amorrortu Bobeda, Atxiki Gabeko Kidea.
 Oihana Gomara Pikaza, Atxiki Gabeko Kidea.
 Ziortza Uriarte Bilbao, Atxiki Gabeko Kidea.
 Josu Zabala Atxa, Atxiki Gabeko Kidea.

Asistentes:

Jon Karla Menoio Llano, Alcalde.
 Juan José Unzaga Bilbao, concejal de PNV.
 Leire Orueta Bergara, concejal de PNV.
 María Izaskun Arregi Zubiaur, concejal de PNV.
 Izaskun Miñano Larrea, concejal de PNV.
 Pedro María Isusi Camino, concejal de PNV.
 Juan Antonio Bilbao Gallastegi, concejal de PNV.
 Txaro Sarasua Díaz, concejal del PSE-EE.
 Juan Ángel Gómez Calero, concejal del PSE-EE.
 Paqui Macías González, concejal del PSE-EE.
 Carlos De Urquijo Valdivielso, concejal del PP.
 Rosa Torres Corres, concejal del PP.
 Peli Ortiz de Zarate Constenla, Miembro No Adscrito.
 Gaizka Amorrortu Bobeda, Miembro No Adscrito.
 Oihana Gomara Pikaza, Miembro No Adscrito.
 Ziortza Uriarte Bilbao, Miembro No Adscrito.
 Josu Zabala Atxa, Miembro No Adscrito.

Gerardo M. Elejalde Zulueta, Aldirako Idazkaria.

Gerardo M. Elejalde Zulueta, Secretario en funciones.

Segituan eta Udal Buruaren aginduz, eguneko gaien zerrendan sartutako gaiak aztertu eta eztabaidatu ondoren, honako erabaki hauexek hartu ziren:

A continuación y de orden de la Presidencia se procedió al estudio y debate de los asuntos incluidos en el Orden del Día, adoptándose los siguientes acuerdos:

39.- 2010KO UDAL AURREKONTUKO KREDITUEN ALDAKETA ESPEDIENTEEN ONARPEN DEKRETUEN BERRI EMATEA 14 ETA 15 KD.- ALKATE LEHENDAKARITZAREN PROPOSAMENA, OGASUN ETA ONDARE ARLOKO ZINEGOTZI ORDEZKARI LAGUNTZAILEAREN BITARTEZ, AURRETIKO OSOKO BILKURAKO BATZORDE INFORMATIBOAREN IRIZPENAZ.- JAKINAREN GAINEAN.

39.-. DAR CUENTA DE LOS DECRETOS DE APROBACIÓN DEL EXPEDIENTE DE MODIFICACIÓN DE CRÉDITOS DEL PRESUPUESTO MUNICIPAL PARA 2010, Nº 14 Y 15 ZK.- PROPUESTA DE LA ALCALDÍA-PRESIDENCIA, A TRAVÉS DE LA CONCEJALÍA DELEGADA ADJUNTA DEL ÁREA DE HACIENDA Y PATRIMONIO, PREVIO DICTAMEN DE LA COMISIÓN INFORMATIVA DE ASUNTOS DE PLENO.-ENTERADA.



Arabako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuen Otsailaren 9ko 3/2004 Foru Arauko 27. artikuluan eta hurrengoetan araututa dago Aurrekontu orokorrak osatzen dituzten aurrekontuetarik bakoitzeko sarreraren eta gastuen orrietako aldaketen araubideari ezarri beharreko Arautegia, ukituriko orrietako zenbateko osoari dagozkion aldaketak, araubideok gordeko dituztela: kredituen gaikuntza, diru-sarrerak, kredituen txertaketa, baliogabetzearen ziozko baxak, kreditu gehigarriak eta itunak edo lankidetzak-hitzarmenak.

Arabako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzko Otsailaren 9ko 3/2004 Foru Arauko 27. artikulua eta Aurrekontua Gauzatzeko Udal Arauak dio Korporazio Lehendakari edo Udal buruaren eskumeneko aldaketen onarpenaren berri emango zaiola Udalbatzaren Osoko Bilkurari. Orain arte izapidetu direnak, honako hauek dira.

DEKRETU Zk. 1.124, 2010-06-10 – ZK. 14/10.
DEKRETU Zk. 1.234, 2010-06-21 – ZK. 15/10.

Guzti horregatik, Ogasun eta Ondare Arloko Goi Teknikariaren eta Alkatezaren proposamenaz, Ogasun eta Ondare Arloko Zinegotzi Ordezkarari Laguntzaile bidez, Osoko Gaietako Informazio Batzordearen aurrekoko irizpenaz, Udalbatzako Osokoak,

ERABAKIA:

Korporazioa jakinaren gainean geratu da.

Korporazioa jakinaren gainean geratu da.

La Norma Foral 3/2004, de 9 de febrero, Presupuestaria de las Entidades Locales del Territorio Histórico de Álava, regula en los artículos 27 y siguientes la normativa aplicable al régimen de modificaciones de los estados de ingresos y gastos de cada uno de los presupuestos integrantes de los generales, mediante el régimen de transferencias de crédito y las modificaciones en la cuantía global de los estados afectados, mediante el régimen de habilitación de créditos por ingresos, de incorporación de créditos, de bajas por anulación, de créditos adicionales y de convenios.

El artículo 27 de la Norma Foral 3/2004, de 9 de febrero, Presupuestaria de las Entidades Locales del Territorio Histórico de Álava, así como la Norma Municipal de Ejecución Presupuestaria dice que se dará cuenta al Pleno de la Corporación Municipal de las aprobaciones de modificaciones que sean competencia del Presidente de la Corporación, habiéndose tramitado hasta este momento las siguientes:

DECRETO Nº 1.124 de 10-06-2010 – Nº 14/10.
DECRETO Nº 1.234 de 21-06-2010 – Nº 15/10.

Por todo lo anterior, a propuesta del Técnico Superior del Área de Hacienda y Patrimonio y de la Alcaldía, a través de la Concejalia Delegada Adjunta de dicha Área, previo dictamen de la Comisión Informativa de Asuntos de Pleno, el Ayuntamiento-Pleno,

ACUERDA:

Darse por notificado de cuanto antecede.

La Corporación se da por enterada..-

40.- INDARKERIAREN EMAKUME BIKTIMEI ARRETA ETA LAGUNTZA HOBEA EMATEKO PROTOKOLOA.- ALKATETZAREN PROPOSAMENA HEZKUNTZA, EMAKUMEA ETA GAZTERIA ARLOKO ZINEGOTZI DELEGATUAREN ORDEZ AURRETIKO HEZKUNTZA, EMAKUMEA ETA GAZTERIA ETA PRESTAKUNTZA, ENPLEGUA, MERKATARITZA ETA LANDA-GARAPEN ARLOETAKO INFORMAZIO BATZORDEAREN IRIZPENAZ.- ONARTUA.

Jarraian aurkeztu da Laudio Herriko Etxeko Hezkuntza, Emakumea eta Gazteria eta Udaltzaingoa Arloek, biek era batera landu duten emakumeen aurka, emakume izate hutsagatik, eragindako indarkeriaren aurrean arreta eta laguntza eskaintzeko protokoloa.



Udal protokolo honen helburu nagusia da antolatzea Hezkuntza, Emakumea eta Gazteria Arlotik eta Udaltzaingotik eskaini behar den erantzuna, emakumeen aurka, emakume izate hutsagatik, eragindako indarkeria legez identifikatutako egoera baten aurrean.

Protokolo honek nahi du.

1. Identifikatu zein zerbitzu eta pertsonengana jo daitekeen, zein momentutan egin daitekeen eta zein helburu, xede eta objektuz.
2. Azaldu bakoitzaren zereginak eta ardurak eta erantzukizunak.
3. Azaldu bitartean eragindako Udal arlo bakoitzak eskura jarri eta ipiniko dituen baliabidea materialak eta pertsonalak.

Protokoloak ez ditu biltzen suerta daitezkeen arazo guztientzako erantzun guztiak, baina bertan jasota daude eta badauzka egun dauden mekanismoekin arazo horiei erantzuteko.

Proposamen terminologikoa

Gaur egun emakumeen aurka, emakume izate hutsagatik, era batera eta bestera eragiten den indarkeriaren fenomenoaren izendatzeko kontzeptu asko erabiltzen dira: indarkeria sexista, gizonezkoen indarkeria, genero-indarkeria,... Dena den, terminologia bateratu eta errakuntzak saihestu nahian, protokolo honetan emakumeen aurkako indarkeria termino erabiliko da.

Proposatzen den emakumeen aurkako indarkeriaren definizioa bada Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legeko 50. artikuluan eta 2002ko apirilaren 30ean Europako Kontseiluko Ministroen Batzarreak Estatu Kideei Emakumea Indarkeriaz Babesteko onartutako Gomendioan jasotakoa.

“...emakumeen aurkako indarkeriatzat hartuko da sexuaren ziozko edozein ekintza bortitz, baldin eta ekintza horrek emakumeari kalte fisiko, sexual edo psikologikoa edo sufrimendua ekartzen badio edo ekar badiezaioke. Jokaera horien artean sartuko dira emakumea ekintza horiek egitearekin mehatxatzea, hertsapenak egitea edo askatasuna arbitrarioki kentzea, bizitza publikoan edo pribatuan”.

[Definizio hori Nazio Batuen Batzar Nagusia, 1993an, “Emakumeen aurkako Indarkeria Deuseztatzeari buruzko Deklarazioa” izenekoan (AG 48/104 Ebazpena, NBE, 1994) eta 1995ean Beijingeko Emakumearen Munduko IV. Konferentzian onartutako ekintzarako Plataforman jasotako gidalerro nagusiekin bat dator.]

Protokoloko arauen / eskumenen testuingurua

Protokolo honek Estatuan eta EAEn izaera orokorrean martxan jarritako protokoloek ezarritako xedapenak, gai honetan indarrean dagoen legegintza eta jarduera eta jarraibide irizpideak errespetatu eta horiekin bat dator. Horiek badira, besteak beste:

Protokoloak

- 1 Emakumeen aurkako diskriminazio-modu guztiak deuseztatzeari buruzko konbentzioaren aukerako protokoloa, 1999.
- 2 Etxeko tratu txarrak eta sexu-erasoak jasaten dituzten emakumeei laguntza hobea emateko erakunde arteko hitzarmena, 2001.
- 3 Etxeko tratu txarrak jasaten dituzten emakumeentzako segurtasun-plana, 2002-2004.



4 Etxeko indarkeria eta genero-indarkeria jasaten dituzten biktimak babesteko, Segurtasuneko Indar eta Kidegoek organo judizialarekin koordinatuta jarduteko protokoloa, 2004.

5 Etxeko indarkeria jasaten duten biktimak babesteko agindua ezartzeko protokoloa, 2003.

6 Etxeko indarkeria jasaten duten biktimei ezarritako babes-agindua eraginkorra izateko koordinazio-protokoloa gizarte-zerbitzuen alorrean, 2004.

7 Generoko Indarkeriaren aurkako Babes Osoko Neurriei buruzko Legea eta Etxeko Indarkeriaren Biktimak Babesteko Agindua eraginkorra izateko lurraldekako koordinazio-protokoloak, 2005eko ekaina.

8 Etxeko tratu txarrei buruzko osasun-protokoloa.

9 Etxeko tratu txarrak jasaten dituzten biktimentzako harrera eta etxebizitza-baliabideak hobetzeko programa, 2004-2005.

Legeak

1 4/2005 Legea, otsailaren 18koa, Emakumeen eta Gizonen berdintasunerakoa.

2 1/2004 Lege Organikoa, abenduaren 28koa, Genero Indarkeriaren aurkako Babes Integralerako Neurriei buruzkoa.

3 27/2003 Legea, uztailaren 31koa, etxeko indarkeriaren biktimak babesteko Agindua arautu duena.

Laudion protokolo honen beharrian funtsatzen dueneko esparrua.

Segidan aurkeztuko dugun protokoloak badu bere arrazoibide eta justifikazio esparrua ondorengo gai hauetan:

Erakundeen arteko II. Akordio bat egotea

Etxeko tratu txarrak eta sexu indarkeria jasaten dituzten emakumeentzako arreta hobetzeko Erakundeen arteko II. Akordioak suposatzen du 2001eko urriaren 18 sinatutako erakundeen arteko hitzarmenaren indar aldia amaitu egin dela.

Erabaki honek eraginak, ondorioak eta indarra hartuko du sinatu den egunetik hasita 2009ko abenduaren 31ra artea, berez luzatuta geratuko delarik, salbu eta aldeetakoren batek berariazko uko idatzia aurkeztu, eta bere errealitatean aplikatzeko eta garatzeko arloan eskumena eta erantzukizuna duten erakundeak obligatzen ditu.

4/2005 Euskadiko Berdintasun Legea.

Otsailaren 18koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako, 4/2005 Legeko 62.3 artikulua dio: *"Foru- eta toki-administrazioek zera bultzatuko dute: aurreko bi paragrafoetan aipatutako akordioak eta protokoloak garatu, zehaztu eta administrazio bakoitzaren errealitateara egokitu dituzten lankidetzak akordioak eta protokoloak har daitezela beren lurralde-eremuan"*

Laudio: Berdinsareako udal kidea.

Emakumeenganako Indarkeriaren aurkako eta Berdintasunaren aldeko Euskadiko Udalen Sareko - Berdinsarea- lehentasuneko helburua da bultzatzea kide diren udalen artean etxeko tratu txarren edo sexu erasokoen biktima diren emakumeei arreta hobetzeko protokoloak sortzea.

Laudio: aukera berdintasuneko plana

Laudio udalak badu 2006 urtetik hona I. Emakume eta Gizonentzako Aukera Berdintasun Plana. Plan horren indarraldia bada 2006 -2009 bitartekoa.



Plan hori 10 esku-hartze Arlotan egituratuta dago; arlo horietan, aldi berean, zehaztuta daude helburu orokorrak eta helburu espezifikoak.

Arlo horietako baten ardatza, 7.a hain zuzen, emakumeen aurkako indarkeriaren inguruan eta bere ekintzen artean bira biran dabil, beti ere herrian tratu txarrak jaso dituzten emakume biktimei benetako arreta eskaintzera orientatuta, barne izanik: "tratu txarren emakume biktimei Arreta emateko udalaren protokolo bat prestatzea". Planaren apartatu honetan dago, segidan aurkezten den protokoloa prestatzearen justifikazioa.

Protokoloa norentzako dago zuzenduta?

Protokolo honek aurkezten ditu Laudio Herriko Etxe honetan esparru eta barruti honetan eskumena daukaten edo edukiko duten bi Arloen martxan ipini behar dituzten indarkeriaren emakume biktimentzako arreta gaien arloko ekimenak: hona 2 Arlook: Hezkuntza, Emakumea eta Gazteria eta Udaltzaingoa.

Beraz, protokolo hau, funtsean eta berariaz beraiantzat zuzenduta dago.

Protokoloaren jarduera esparrua

Protokolo honen jarduera esparrua Laudio Udalerriaren barrutia da.

Heldu beharreko azaroen aspektuak:

Emakumeen aurkako indarkeriaren tratamendua, kontuan izanik arazo horretan eragiten duten faktoreen izaera diziplina -anitzekoa, exijitzen du gaian eskumena duten Herriko Etxeko arlo guztien jardun koordinatua eta bateratua.

Aldi berean, ezinbestekoa da indarkeria kasu baten aurrean esku-hartzen duten lurralde arlo zerbitzu guztien koordinazioa erraztea (osasun arlokoak, epaitegia, hezkuntza,...), emakumei ematen zaien arreta hobetzeko helburuaz eta xedeaz.

Halaber, erabateko arreta bermatu beharko zaie indarkeriaren biktimei.

Etengabeko prestakuntza prozesuak:

Urte oroko eta etengabeko prestakuntzaren presentzia bermatzeko aurrekontuan gaitu eta hornitu egin behar da partida espezifiko bat emakumeen aurkako indarkeriaren arloan prestakuntza eskainiko den kanpo kontrataziorako xederatuta. Protokoloko Batzordeak urte oro programatuko du gauzatuko den prestakuntza, besteak beste, hauek zehaztuz: , prestakuntza emango duen pertsonal aditua, edukia, ordu zenbatekoa eta prestakuntzaren xede den pertsonala.

Protokoloko betetze gradua gainbegiratzeko mekanismoak:

Funtsezkoa da aldiro analizatzea ezagutzeko Herriko Etxe barruan protokoloak noraino betetze-gradua lortu duen aztertzea, kontrolatuz planifikatutako ekimenen betetze-gradua, planifikatutako ekintzak betetzen direla kontrolatuz, etorkizunean hobetzeko bideak adieraziz eta langileengan lanarekiko ardura handituz. Horretarako, Protokolo Batzordeak gauzatutako ekimenei buruzko memoria laburra jasoko da urte oro; bertan gehituko dira Protokoloko testuari eguneratzeko hobetzeko bide eta lerro guztiak eta, gainera, bere funtzionamendua eraginkorra izateko ezinbesteko urte oroko etengabeko prestakuntzari buruzko informazio guztia jasoko du.



I. KAPITULUA

INDARKERIAREN EMAKUME BIKTIMEN ARRETARAKO HEZKUNTZA, EMAKUMEA ETA GAZTERIA ARLOAN JARDUN BEHARREKOA

Bere sexuaren zioz pairatutako indarkeriaren emakume biktima bat aurkeztuko denean Laudio Herriko Etxeko Hezkuntza, Emakumea eta Gazteria Arloan, ondorengo urratsak jarraituko dira:

A. Langile Sozialaren arreta Protokoloa

Eman behar den lehen urratsa: mota horretako indarkeriaren emakume biktimaren bat aurkezten baldin bada, bada berari enpatiaz entzutea, leku pribatu batean eta beretzako erosoia izango denean, ostean denbora laburrean informatzeko bere eskura dituen baliabideen gainean eta mota honetako kasuen kudeaketa zuzenaren ardura duen langile sozialarengana eramanda.

A.1. Biktimak osasun-sorospenik edo laguntzarik beharko balu, dagokion zerbitzu medikura laguntzea.

Osasun-sorospenak behar dituzten lesioak agerian baditu biktimak, edo nahi eta horiek ikusteko modukoak izan ez, susmatzen bada egon badaudela, langile sozialak lagundu egin beharko dio dagokion medikura, baldin eta kasua bada bakarrik etorri dela. Gainera, adieraziko zaio eskatzeko lesioen parte bat ahal denik zehaztasun handienaz, salaketa egiteko momentuan aurkeztu ahal izateko xedez.

Sexu eraso egin berria bada, SOS-Deiak jakinaren gainean jarri, horrela beharrezko gestioak abian jartzeko. Ondoren, biktimari ospitale hurbileneko larrialdi zerbitzura lagunduko zaio, eta ez garbitzeko eta arroparik ez aldatzeko esan. Orobat, ahotik erasoak egon badira, biktimak ezingo du ez jan, ezta edan ere.

Behin biktima ospitalera lagunduta, mediku azterketa egiteko eta laginak hartzeko, alde zuzenetik auzitegiko medikuari deitu behar zaio. Auzitegiko medikuari ospitalera joateko esango zaio eta, era berean, osasun zentroko do ospitaleko medikuei gestio horren berri emango zaie. Orobat, auzitegiko medikuari eskura dauden gertakizunari buruzko datu guztiak emango dizkiote.

A.2. Biktimak osasun laguntzarik behar ez badu, Herriko Etxeko –Udaletxeko- Gizarte-Langilearen arreta.

Biktimak osasun laguntzarik behar ez badu, arreta egokia emango zaio, betiere biktimaren egoera emozional berezia kontuan izanda.

Emakumearen segurtasun edo osotasun fisikoa arriskuan badago, biktima babesteko Udal Poliziari eskatu Oinarrizko Gizarte Zerbitzuko bulegora joateko.

Lehenengo elkarrizketaren objektua eta helburua izango da biktimak erasoan jasan duen egoerari buruzko informazioa lortzea eta biktimari laguntza ematea eta bere egoerari arreta eskaintzeko zein baliabide dituen eta arazoak dituen irtenbide eta soluzioak azaltzea. Gainera, lehen bilera honetaz baliatu eta profitatu behar da biktimak eduki ahal dituen beharrezkoak identifikatzeko (laguntza psikologikoa, diru-laguntza eta ekonomi beharrezkoak, laguntza juridikoa...). Informazioa bildu eta jasoko da, II. Eranskinean txertatuta doan ereduari jarraituz.

Jakinaraziko zaio, aldi berean, bera eta bere seme-alabak seguru babestuta egoteko eskura dauden ahal diren baliabide guztiak erabiliko direla. Gainera, emakumea lasaitu egin behar da eta laguntza eta segurtasuna eman.



Azkenik, Gizarte Zerbitzuetako Langileak informazioa eta aholkua emango dio biktimari, oinarritzko forman, bere eskubideei eta egin beharreko prozedura judizialei eta izapideei buruz, bereziki eta batez ere, esan behar dio badituela eskubide hauek: gertatutakoa Poliziaren aurrean edo Zaintzako Epaitegian salatze eskubidea, erasotzailea beragandik urruntzea eskatzeko eskubidea, banantze zibilerako behin-behinekoak bakarrik diren neurriak eskatzeko eskubidea, eta, legezko betebeharrak betez gero, hala badagokio, Abokatuen Elkargoko Argibide Juridikoetako Zerbitzuetatik doako justizia jasotzeko eta 35/1995 Legean araututako laguntzak eskatzeko eskubidea Biktimak Laguntzeko Zerbitzuen bitartez.

Era berean, emakumeari jakinaraziko zaio eta, hala bada kasua, tratu txarretarako eta sexu erasoetarako Laudion edo Araban dauden doako gizarte baliabideak eskuratzen kudeatu eta lagunduko zaio:

- 1 Foru Aldundiko harrera etxeak.
 - 2 Laguntza juridikoko zerbitzuak.
 - 3 Laguntza eta arreta psikologikoko zerbitzuak.
 - 4 Laguntza ekonomikoak.
 - 5 Gasteizeko Larrialdietako Udal Zerbitzua.
 - 6 Laudio Udaleko harrera etxea.
- Doako Laguntza Juridikoaren tramitazioa.

Emakumeari gogoraraziko zaio berebiziko eta egundoko garrantzia duela egoera gainditzeko eskura dauden baliabideak erabiltzea, batez ere eta bereziki, laguntza eta arreta psikologikoko programak.

A.3. Emakumearen gizarte-familia egoeraren azterketa.

Lehen elkarrizketa amaitutakoan eta behin Gizarte Zerbitzuetako Langileak beharrezko den informazio guztia jaso eta bildutakoan, informazio horren balidazio eta kontratazioari ekingo zaio laguntza eman dioten mediku, psikologoekin..., eman dituen harremanetarako pertsonekin... Balidazio horren helburu nagusia da lehen kontaktu honetan biktimak emandako informazio guztia argizatzea, funtsatzea...

A.4. Kasuaren balorazioa

Emakumearen egoera baloratzeko orduan eta beste baliabide batzuetara bideratzen den ala ez ponderatzeko Gizarte Langileak kontuan edukiko ditu honako aspektu hauek:

Emakumeen kontrako etxeko tratu txarrak eta sexu indarkeriaren aurrean jarduteko Gizarte Zerbitzuetako Profesionalen Gida. Emakunde)

1 Baliabidea pertsonalak. Horiek dira pertsonak berak bere eskura dituen baliabide eta bitartekoak (prestakuntza, baliabide ekonomikoak, gizarte trebetasunak, osasun egoera...) eta tratu txarra konpontzeko erabilgarritasun handikoak izan daitezkeenak.

2 Gizarte baliabideak. Bere inguru hurbileko erkidegoan (familia, lagunak, auzokoak...) dituen euskarri eta laguntzei egiten die erreferentzia.

3 Erakunde baliabideak. Emakumeei euren beharrizan espezifikoen (babesa, euskarria...) laguntzeko ardura duten arlo publiko edo pribatuko prestazio, zerbitzu edo / eta programei egiten die erreferentzia.

A.5. Biktima beste zerbitzu batzuetara bideratzea.

Gizarte Zerbitzuetako Langileak hala baloratzen duenean, beti eta biktimak onartzen badu, bidera dezake eskura dauden sexuaren ziozko indarkeriaren biktima emakumeei arreta emateko gainerako udal baliabideetara edo, hala bada kasua, emakumearen beharrizanen arabera, Gasteizen dauden beste zerbitzu



batzuetara.

Erakundea	Zerbitzua	Harreman Pertsona	Telefonoa	Ordutegia
Laudio Udala / Herriko Etxea	Lege Aholkularitza	Susana	94 403 48 50	Hileko lehen ostirala (goizez)
Laudio Udala / Herriko Etxea	Arreta psikologikoa	Natalia	94 403 48 50	Astelehen eta asteazken (goizez)
Laudio Udala / Herriko Etxea	Harrera etxea	Itziar	94 403 48 45	Astelehen-ostirala bitartean (goizez)
Laudio Udala / Herriko Etxea	Gizarte Langilea	Itziar	94 403 48 45	Astelehen-ostirala bitartean (goizez)
Gasteizeko Larrialdietako Udal Zerbitzua.			945 13 44 44	Gau eta eguneko edozein ordutan

Oharra: Gasteizeko Larrialdietako Udal Zerbitzuak (Gizarte Larrialdietako Zerbitzuak), lehen arreta egiten du eta biktimak harrera etxeetara bideratzen ditu. Zerbitzu hori Arabako Lurralde Historiko gutzirako prestatzen da eta bere langileen presentzia fisikoa bertan dela 8:00 - 22:00 ordutegi barruan funtzionatzen du eta egunaren gainerako zatian 945 13 44 44 "bilaketari" bidez lekuragarri daudelarik. Helbidea: Espainia Plaza z/g, 01001 Vitoria-Gasteiz.

Bideratze hori dagozkion bidaltze-txostenekin batera lagunduta joan behar da. I. Eranskina.

A.6. Kasuen jarraipena

Gizarte Zerbitzuetako Langileak jarraipena egingo du, prozesu guztian zehar biktimarekin hileroko egingo dituen elkarrizketen bitartez, gainerako biktimei laguntzeko zerbitzuekin koordinazioan, emakumeak berriro ere bizimodu normalizatua ezartzen eta antolatzen laguntzeko xedeaz. Elkarrizketa horien zenbatekoa aldakorra izango da jarraipen intentsiboa (4 hileko), erdi-intentsiboa (1 hileko) edo mantentze-lanekoa (1 bi hilero) behar izatearen arabera.

Elkarrizketa guzti horiek erantsita eraman behar dute txosten bat bertan jasoaraziz elkarrizketa egin deneko eguna eta bertan jasotako aspekturik garrantzitsuenak.

A.7. Prozedura noiz itxi

Biktimak jadanik gizarte zerbitzuetako langilearen edo gainerako eskura dauden baliabideen euskarririk edo laguntza beharrik ez duenean, prozedura amaitutzat jo ohi da.

B. Psikologia-arreta zerbitzuko laguntza protokoloa

Sexu zioz jasandako indarkeriaren biktima emakume bat psikologo emakumearen aurrean aurkezten denean...

B.1. Kasuaren informazioa jasotzea fitxa pertsonalizatu bitartez.

Biktima Gizarte Zerbitzuetako Langileak bideratuta datorren kasuan, Gizarte Langileak bidaltze-txostena igorriko dio zein psikologoak berak jasotako informazio hauekin osatuko den: , Biktimaren datu pertsonalak, bizitakoaren ezaugarriak, tratu txar emaiaren datuak, bideratzeko kanalak,...



Kasua bada biktima zuzenean doala bere kabuz psikologoarena, inork bideratua izan barik, psikologoak beteko du bere fitxa propioa.

Lehen hitzordu edo zitatik hasita kasuaren balorazio bat burutuko da eta hitzordua emango zaio emakumeari hurrengo zita baterako.

B.2. Aste oroko zitak

Hitzordu horietan zehar ebaluazio pertsonal bat egin ohi da. Aste oroko zita horiek iraun ohi duten denbora, bataz beste, 2 hilekoa da.

B.3. Tratamendu psikologikoa, sintomatologiaren arabera.

Biktimen tratamendurako maizenik erabilitako teknikak badira: berregituratze kognitiboa, komunikazio gaitasunetan eta arazoan soluzioan trebatzea eta estresa inokulatzeko teknikak. Teknika horiek bideratuta daude itxuraldatutako usteak, pentsamenduak eta sinesmenak zeintzuk diren identifikatzera eta segituan bere onera aldatzeko eta tratu txarraren bizipenarekiko erantzun egokituagoak errazago hartzeko prestatzeko.

1 **Adierazpen emozionalak** badu helburu legez biktimari aditzera ematea ulertzen dugula zer gertatu zaion eta bera laguntzeko eta euskarria eskaintzeko gaudela; funtsean badatza gertatu zaiona kontatzean eta horretaz pentsatu eta sentitu duen guztia berak adieraztean. Jasandako umilazioengatik eta narritagarritasunagatiko emozioak asaskatzeko aukera eskaintzean datza.

2 **Berrebaluazio kognitiboa** hiru funtsezko puntura zuzenduta dago, alegia:

1 Lehenik, tratu txarreko bizipen aurrean erreakzio normalak esplikatzea eta beldurrak barneratzeko eta horien mantentze prozesua ulertzea.

2 Bigarrenik, tolestura kognitiboak ezabatzeko arrazoibidezko eztabaida, batez ere, auto-estima baxudun eta errudun sentimenduekiko.

3 Eta hirugarrenik, egitate eta gertaera traumatikoa berriro kokatzeko bere termino zehatzetan, errealismoz analizatzeko ezkontideen elkarbizitzaren eta seme-alaben egoeraren fazeta ezberdinak, eta biktimei laguntza eta euskarria eskaintzea euren bizimoduekin aurrera jarraitzeko.

3 **Aurre egiteko gaitasun espezifikoetan trebatzeak bere baitan dakar:**

4 Neurriak hartzea, hala nola salaketa, ezkontideen egoitzatik alde egitea eta soluzio alternatibo bat bilatzea (esate baterako, harrera etxe bat).

5 Gihar-erlaxazio progresiboan eta arnasketa sakonetan trebatzea.

6 Arazoak konpontzeko eta soluzionatzeko trebetasunen eta tratu txar emailearen portaera erasokorraren gaineko kontrol tekniken irakaskuntza.

7 Ekintza pozgarriak apur apurka berreskuratzeko laguntzea, gizarteko laguntza sareak eskaintzea eta independentzia eta autonomiako jarrerak sustatzea.

8 Hala behar den kasuetan, saihestutako portaera eta jarrerari aurre egitea, esposizio edo / eta kezka errepikakorren tekniken bidez, distrakzio kognitiboko tekniken bidez.

Gorago azaldutako banan banako tratamendu guztia osatzen da Gasteizko Udaleko zerbitzuek biktimei eskaintzen dieten aukeraz Gasteizen talde-terapiara joateko. Badago, gainera, lankidetzeta-hitzarmen bat Udalaren eta San Prudentzio fundazioaren artean, zeinaren bitartez tratu txarren biktima emakumeentzako lanean sartzeko programa batean sar daitezkeen.



B.4. Jarraipena

Hiru unetan egiten da: 1.- tratamendua amaitu eta hilabetera, 2.- 3 hilero eta 3.- 6 hilero.

Emakumeak adingabeak bere ardurapean baditu, ia tratamendurik behar duten baloratzen da eta beti eskaintzen zaie tratamendua, baia ama tratamenduan dagoenean ere. Tratamendua eskaintzen zaie eta, hala bada kasua, beste zerbitzu batzuetara bideratzea.

2009ko ekainaren 18an, Laudio Udalak, Arabako Foru Aldundiko Gizarte Politika eta Gizarte Zerbitzuetako Sailak eta Arabako Landa-giroko Emakumeen Sareak, Lankidetzeta Hitzarmen bat izenpetu dute etxeko tratatu txarren biktima emakumeen mendeko adingabeei laguntza psikologiko espezializatuko arreta zerbitzuko ordutegian zuzendutako arreta programa bat kudeatzek, Laudio udalerrian familien bake-bideratzea errazteko ekimen legez.

B.5. Beste zerbitzu espezifiko batzuetarako bideratzeak

Laguntza psikologikoaren zerbitzuaren estaldura ez da 24 ordukoa, beraz, ezarritako ordutegitik kanpo, ordutegiz kanpoko kasuak, batez ere, Gasteiza bideratu ohi dira, **24 orduko larrialdi zerbitzua** baitu (945 13 44 44).

Erakundea:	Zerbitzua	Harreman Pertsona	Telefonoa	Ordutegia
Laudio Udala	Lege Aholkularitza	Susana	94 403 48 50	Hileko lehen ostirala (goizez)
Laudio Udala	Arreta psikologikoa	Natalia	94 403 48 50	Astelehen - asteazken (goizez)
Laudio Udala	Harrera etxea	Itziar	94 403 48 45	Astelehen-ostirala bitartean (goizez)
Laudio Udala	Gizarte Langilea	Itziar	94 403 48 45	Astelehen-ostirala bitartean (goizez)
Gasteizko Larrialdietako Udal Zerbitzua.			945 13 44 44	Gau eta eguneko orduetan edozein

Oharra: Gasteizko Larrialdietako Udal Zerbitzuak (Gizarte Larrialdietako Zerbitzuak), lehen arreta egiten du eta biktimak harrera etxetara bideratzen ditu. Zerbitzu hori Arabako Lurralde Historiko gutzirako prestatzen da eta bere langileen presentzia fisikoa bertan dela **8:00 - 22:00 ordutegi barruan funtzionatzen du** eta egunaren gainerako zatian lekuragarri daudelarik **945 13 44 44 «bilaketari» bidez.**
Helbidea: Espainia Plaza z/g, 01001 Vitoria-Gasteiz.

SARRERA-BIDEA:

24 orduko larrialdi zerbitzua

1 Udaltzaingoa Fundazioa. **Deribazioa (behar den kasuan) Lanean hasteko** **Talde-terapia** **San** **Prudentzio**



2	Ertzaintza			
3	Gizarte Langilea			
4	Norbere ekimenez	Psikologia aholkularitza	Aste oro zitak	Tratamendu
	psikologikoa	Urteko jarraipena		
5	(Ebaluazio pertsonala)			
6	Emakunde			
7	Norbere medikua			
8	Biktimaren arreta zerbitzua	Berregituraketa kognitiboa		Komunikazio
	abilidacetan eta arazoan soluzioan trebakuntza	Estresa sartzea		
9				
10	Bestelakoak			

C. Aholkularitza juridiko zerbitzuko arreta protokoloa:

C.1. Aurretiko hitzordua edo zita

Hitzordua hartzeko, Herriko Etxeko oinarrizko gizarte zerbitzuetara telefonoz deitu edo bertara joan behar da.

C.2. Hileroko hitzorduak.

Behin hitzordurako eguna eta orduan izendatutako daukatela eta bertara joanda, bete beharreko fitxetan aldeztutako zehaztuta datozen datu batzuk jasota uzten dira, hau da, hitzorduari eta erabiltzaileari buruzko guztia.

Hartuko zaizkio bere datu pertsonalak, adina, lanbidea, ikasketak, zenbat seme-alaba...; beharrezkoa balitz ohar gehigarriren bat egitea, baita egiten da ere. Halaber, idatzizko oharrean jasotzen da zerbitzura lehen aldiz datorren ala, aitzitik, beste aukeraren batean ere jadanik etorri den, eta hala balitz, islatuko da data eta zioa. Halaber, jasota geratu ohi da, hala bada kasua, bideratu duen agentea nor den, edo beste zerbitzuren batera bideratzea beharrezkoa deritzon ala ez.

Azkenik, idatziz jasotzen da elkarrizketaren eguna eta kontsultaren zioa, hala nola zein gairi dagokion, hau da, gaia familia, zigor, zibileko oinordetza, lan arloko... gairen bat den.

Normalean galdetu ohi zaio ere ia aholkularitza behar duen gaia beste abokaturen bat aztertzen ari den ala daraman, izan ere, kasua hori bada, horiek ere etorri ahal baitira zerbitzura.

Behin elkarrizketa amaitutakoan, gerta daiteke erabiltzaileak eskaini zaiona baino informazio gehiago behar izatea. Kasua hori bada, beste egun baterako hitzordua ematen zaie edo / eta premiazko eta presazko kasuan, informazio telefonoz osatzen da.

Aldi berean, adierazten zaie ezen, hala behar balute, zerbitzura etor daitezkeela behin baino gehiagotan.

C.3. Beste zerbitzu espezifiko batzuetarako bideratzeak

Emakumeak gainerako udal zerbitzuetara bideratzea ezinbesteko iritziko balitzaio, joango dira psikologia zerbitzura eta dagokion gizarte zerbitzuetako langilearengana.

Emakumeek baliabide ekonomikoaren gabezia aurkezten duten kasuan, Arabako Abokatuen Elkargoko Orientazio Juridikoaren Zerbitzura bideratu, doaneko justiziaren onura eska dezaten eta ofiziozko



abokatua izendatu ahal izan dakien abiarazteko eta izapidetzeko kasu zehatz bakoitzari dagokion auzi-prozedurari dagokion guztia.

Kasua bada nazionalitate eskaera (atzerritartasuna) edo abizen aldaketa gertatu dela, egin behar dituzten tramite eta izapideen gainean informazioa eskaini ostean, gai horien gainean ebazteko eskumena duen organoa den Erregistro Zibilera bideratuko dira.

Erakundea:	Zerbitzua	Harreman Pertsona	Telefonoa	Ordutegia
Laudio Udala / Herriko Etxea	Lege Aholkularitza	Susana	94 403 48 50	Hileko lehen ostirala (goizez)
Laudio Udala / Herriko Etxea	Arreta psikologikoa	Natalia	94 403 48 50	Astelehen - asteazken (goizez)
Laudio Udala / Herriko Etxea	Harrera etxea	Itziar	94 403 48 45	Astelehen-ostirala bitartean (goizez)
Laudio Udala / Herriko Etxea	Gizarte Langilea	Itziar	94 403 48 45	Astelehen-ostirala bitartean (goizez)
Gasteizko Larrialdietako Udal Zerbitzua.			945 13 44 44	Gau eta eguneko edozein ordutan

Oharra: *Gasteizko Larrialdietako Udal Zerbitzuak (Gizarte Larrialdietako Zerbitzuak), lehen arreta egiten du eta biktimak harrera etxeetara bideratzen ditu. Zerbitzu hori Arabako Lurralde Historiko guztirako prestatzen da eta bere langileen presentzia fisikoa bertan dela 8:00 - 22:00 ordutegi barruan funtzionatzen du eta egunaren gainerako zatian lekuragarri daudelarik 945 13 44 44 «bilaketari» bidez. Helbidea: Espainia Plaza z/g, 01001 Vitoria-Gasteiz.*

2. KAPITULUA INDARKERIAREN BIKTIMA EMAKUMEEN ARRETARAKO UDALTZAINGOAREN JARDUERA

Genero indarkeriaren biktima izan den emakumea Udaltzaingoarekin harremanetan jarriko denean, bai telefonoz, bai udaltzaingoaren bulegoetan bera aurkeztuta, jarraitu beharreko urratsak, kontuan izanik Etxeko tratu txarrak eta sexu indarkeria jasaten dituzten emakumeentzako arreta hobetzeko Erakundearen arto II. Akordioan araututakoa, ondorengo hauek izango dira:

Eusko Jaurlaritzako Barne Saileko Segurtasuneko sailburuordearen jarraibideak sexu erasoak eta etxeko tratu txarrak gertatzen direnean jarraitu beharrekoak.

2.1. Larrialdiari arreta

Larrialdia etorri ahal da Udaltzaingoaren bulegoetara biktimak berak telefono bidez dei eginda edo beste pertsona batzuen telefono dei bidez.

Telefonoari kasu egitea

Deia Udaltzaingoaren bulegoetan zuzenean jasotzen denean, dei hori berehala transferituko zaio irratik operadoreari, eta honek Etxeko Indarkeria / Genero Indarkeria jarduera espezifikoa abian jarriko du.

1 Deia jasotzerakoan, deitu duen pertsonari edo biktimari eskatuko zaio gertatutakoaren gaineko



beharrezko informazioa: Deskribapena, lekua, beharrezko diren baliabideak, ...

2 Zerbitzu-Buruari jakinaraziko zaio, arazoaren zuzendaritza bere gain hartuz.

3 Egiatzatuko da, Ertzaintzaren bitartez, gai horri buruzko espedienterik zabalik dagoen ala ez. Kasua baiezkoa balitz, badago aukera Ertzaintzaren bulegoetara joateko, beti eta biktimak hala nahi badu (bere borondatea beti hartuko da kontuan).

4 Egitatea premiazko izaerakoa bada, "Premiazko Arreta" izeneko jarraibidean ezarritako irizpideak jarraituko dira.

Biktimak hala eskatuz gero edo beste pertsona edo erakunderen batzuek salaketa jarri gero, polizia biktima dagoen etxera edo lekura joango da, eta bertan geldituko da behar den denbora guztian.

2.2. Larrialdiari kasu egitea eta biktimari eman beharreko tratua

Larrialdia Udaltzaingoaren bulegoetan biktimak berak eginiko telefono deiz edo beste pertsona batzuen telefono deia jasota, jarraitu beharreko urratsak hauek izango dira:

Biktimak lesiorik agerian baditu edo nahiz eta horiek ikusteko modukoak ez izan lesioak dituen susmoa edo ustea bada...

Gertuen, hurbilen, dagoen ospitaleko larrialdi zerbitzuetara eramango da, ambulanzian edo polizia baliabidean, eta biktimari eskatuko zaio exijitzeko arren lesioen deskribapen parte eman diezaioten, salaketa jartzen badu erantsita aurkezteko.

Sexu eraso egin berria denean, gertuen dagoen ospitaleko larrialdietara eramango dute. Hor polizia ekipoak segurtatu behar du auzitegiko medikuari jakinarazi diola ospitalera etorrarazteko biktimari mediku azterketa egiteko eta laginak hartzeko. Auzitegiko medikuari eskura dauden gertatuari buruzko datu guztiak emango dizkiote.

Biktimak lesio fisikorik ageri ez duenean...

Biktimak lesio fisikorik ez badu ageri, jakinaraziko zaio ezen:

1 Ahal duela salaketa ipini eta Babesteko Agindu bat eskatu, doaneko abokatu laguntza izateko eskubidearekin.

2 Badaude honelako laguntza zerbitzuak: Ekonomikoa, psikologikoa, etxebizitzakoa eta lege aholkularitzakoa. Horietako baten bat behar izanez gero jarri harremanetan horretarako ipinitako udal telefonoetara dei eginez.

Informazio guztia idatziz ere emango zaio, formatu propioko zabalkunde foiletoen bidez edo jadanik dauden foiletoak banatuz.

Biktimak salaketa bat jarri nahi badu, udaltzaingoaren edo udal poliziaren bulegoetan eramango da non, aitortpena hartzeko berarekin egin beharreko elkarrizketan, adierazi behar zaion salaketa jartzeak zer-nolako ondorioak dakartzan. Horretarako ezinbestekoa da biktimak babesteko eskubideei buruzko azalpen foileto batzuk prestatzea. Sexu erasodun delituetan, adierazi behar zaio, gainera, salaketa jarri beharra dagoela judizialki ustezko erasotzailea pertsegitu eta atzeman ahal izateko.

Aitortpena hartzean, honako puntuak hartuko dira kontuan:

- 1 Espedientea zabaltzea
- 2 Biktimak salatuarekin duen ahaidetasuna



- 3 Gertakizunari buruzko deskribapen xehea.
- 4 Aurreko eraso edo tratu txarrak
- 5 Gertakarian izandako lekukoak

Aldiro errepikatuko dira elkarrizketak biktimarekin: , bi hilero, indarkeriazko gertaera berri baten ostean, jasotako arrisku adierazleak eraldatzen dituzten inguru abarrak suertatzen direnean, biktimak berak halaxe eskatzen duenean eta espedientea amaitu eta itxi aurretik.

Biktimak uko egiten badio poliziaren bulegoetara joateari eta salaketa jartzeari, idatziz jakinaraziko zaio bere eskubideei buruz eta udalerrian eskura dituen baliabideei buruz, era horretan saiatur kasua bideratzen indarkeriaren biktima emakumeekin era zuzenean Herriko Etxetik edo Udaletxetik lan egiten duen edozein Arlotara.

Eskubideak

- 1 Prozesu penalean parte izateko.
- 2 Bere burua eta pertsona babesteko neurriak eskatzeko.
- 3 Banatze zibilerako behin behineko neurriak eskatzeko.

Udal baliabideak

- 1 Gizarte Langilea
- 2 Arreta psikologikoa
- 3 Lege Aholkularitza
- 4 Harrera etxea
- 5 Laguntza ekonomikoak.

Erakundea:	Zerbitzua	Harreman Pertsona	Telefonoa	Ordutegia
Laudio Udala / Herriko Etxea	Lege Aholkularitza	Susana	94 403 48 50	Hileko lehen ostirala (goizez)
Laudio Udala / Herriko Etxea	Arreta psikologikoa	Natalia	94 403 48 50	Astelehen - asteazken (goizez)
Laudio Udala / Herriko Etxea	Harrera etxea	Itziar	94 403 48 45	Astelehen-ostirala bitartean (goizez)
Laudio Udala / Herriko Etxea	Gizarte Langilea	Itziar	94 403 48 45	Astelehen-ostirala bitartean (goizez)
Gasteizko Larrialdietako Udal Zerbitzua.			945 13 44 44	Gau eta eguneko edozein ordutan

Oharra: Gasteizko Larrialdietako Udal Zerbitzuak (Gizarte Larrialdietako Zerbitzuak), lehen arreta egiten du eta biktimak harrera etxetara bideratzen ditu. Zerbitzu hori Arabako Lurralde Historiko gutzirako prestatzen da eta bere langileen presentzia fisikoa bertan dela 8:00 - 22:00 ordutegi barruan funtzionatzen du eta egunaren gainerako zatian lekuragarri daudelarik 945 13 44 44 «bilaketari» bidez. **Helbidea:** Espainia Plaza 7/g, 01001 Vitoria-Gasteiz.

Edozein kasutan ere, nahiz eta bortxakeri seinaleak izan, biktimak ez badu inolako udal zerbitzuren



laguntzarik nahi, dagokion diligentzia formalizatuko da, laguntzari uko egin diola jasoz eta adieraziz, eta gertaeren gaineko komunikazioa igorriko zaie Gizarte Zerbitzuei, familian adingaberik baden adieraziz, ondorioz jardun eta erabaki dezaten.

2.3. Biktimari babesa ematea

Pertsona bakoitzaren kasurako babes neurri egokiak artikulatzeko objektuaz eta xedeaz, ezinbestekoa da polizia gorputz ezberdinen arteko koordinazioa izatea. Laudio Udaltzaingoa eta Ertzaintzaren arteko Akordio konkretua noiz sinatuko duten zain gaudela, kasuan kasuko erantzukizunik handiena beti da Ertzaintzarena, kasuan kasuko informazio eskualdatzearekin osatuz, batez ere, kasurik larrienetan.

Arriskuaren balorazioa egin beharko da kasuan kasuko eskura dagoen aspektu nabarmen eta zuzenei buruzko informazioarekin kontatuz, hau da, biktimak berak eta pertsona erasotzaileak emandako informazioarekin, parte hartu duten polizia agenteekin, gertaeren lekuarekin, lekukoekin eta datu baseekin.

Balorazio horren ondorioz erabakiko da kasuaren arrisku gradua, zein izan ahal den oinarritzkoa, altua ala berezia.

Arrisku gradu bakoitzerako babesteko polizia neurri batzuk daude. Batzuek derrigorreko izaera dute eta arrisku gradua erabaki bezain laster aplikatu behar dira. Beste batzuk aukerakoak dira eta aplikatuak izan daitezke horien erantzukizuna izendatuta dutenek hala erabakitzen dutenaren arabera. Ertzaintza da arriskua baloratzen duena eta Udaltzaingoa parte hartu ahal du ala parte hartu beharrik ez du izango biktima babesteko, babes neurri ezberdinak martxan jartzearen bitartez: Ausazko bisitak biktimari, lekualdatzeak edo laguntzak, babestek operazio puntualak... hala ere, premiazko kasuetan, kasuko erantzukizuna bada aurrenik eta lehenik kasuaren gainean jakitun dena eta ezagutza izan duena, beti ere, une oro biktimari arretea eta laguntza eskainiz.

2.4. Jarduera pertsona erasotzailearekin

Emakumeen aurkako indarkeriaren beste jazoera edo gertaera baten berri izan eta jakin ostean zigor arloko ez legezko motaren bat dagoela ikusten denean eta pertsona erasotzailea ez badago lokalizatuta, Zerbitzu Buruak aginduko du behar diren kudeaketak egin daitezela pertsona hori lokalizatzeko, gutxienez ere txanda bakoitzeko behingoan, espedientean jasota dagoen ustezko helbidera patruila bat bidalita, izapidetzen diren jarraibideak eskumena duen Epaitegira bidali arte. Kudeatze horietako bakoitza jardueran islatuko dira eta guztiak ere espedientean jasota geratuko dira.

Arrisku altuko gradua	Aukerako neurriak
Derrigorreko neurriak	Ausazko bisitaldiak biktimari
Prestakuntza auto-babes neurrietan	Lekualdatzeak/laguntzeak
Ausazko konprobazioak telefono bidez	Babesteko operazio puntualak
Bitarteko teknologikoak. Tele laguntza	Babes-zonan prebentzio ekintzak
telefonoa	Prebentzio ekintzak ohiko errutinetan
	Jagoletza eta jarraipena pertsona erasotzaileari.

Pertsonaren ustezko egoitza Laudiotik kanpo dagoenean, informazioa Ertzaintzari bidaliko zaio.

Pertsona hori lokalizatzen denean ez legezko egintza baloratuko da, berarekin elkarriketa bat egingo



da eta, hala badagokio, atxilotu egingo da.

Pertsona erasotzaileari dagokionez, informatu egingo zaio kautelazko neurriak ez betetzearen ondorio penalei buruz eta dauden gizarte zerbitzuei buruz. Saiatuko da, gainera, biktima eta erasotzailea elkarrekin topo ez egiten eta azkenik, erasotzaileari ez zaio informaziorik emango biktimari buruz.

Edozein kasutan ere, indarkeria biktimen arretaren koordinazioaren eta laguntza hobetzeko, Udaltzaingoak indarkeria kasuei buruzko informazio guztia helaraziko dio Hezkuntza, Emakumea eta Gazteria Arloari bai bidaltze-txosten baten bidez, bai arazoan izandako inguru abarrei buruzko informazio izaerako txoten baten bidez.

			B AI	Eskaini euren Ertzain- etxeko bulegoetara joatea	
			E z	Udaltzaingoak hartuko du kasuaren ardura	
			B AI	Lagundu Osasun Zentrora anbulantzian edo polizia baliabidean.	Eskatu lesioen partea
					Babes- Agindua / Salaketa
		Agindu / Salaketaren babesa lortu nahi du?	B AI	Eraman poliziaren bulegoetara	Elkarrizketa biktimarekin eta informazio bilketa
			E z	Deribazioa – laguntzea Gizarte Ongizate Zerbitzuetara	

3. KAPITULUA EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIAREKIN ERLAZIONATUTAKO GAIAK KUDEATZEA HERRIKO ETXEAN EDO UDALETXEAN

Laudio Udalerrian emakumeen aurkako indarkeriarekin erlazionatutako aspektu guztiak kudeatzera eta kasu horien prebentzioan eta arretan parte hartzen duten pertsonak eta Arloak koordinatzera orientatuta dagoenez, proposatu da indarkeriaren Batzorde bat sortzea gaian zerikusia duten Arloen arteko koordinazioa hobetzeko eta 2009an bere aplikazioa bermatzeko.

Batzordearen osaera eta martxan jartzea (bilerak egutegian zehaztea, tratatu beharreko gaiak...) sorrera prozesuan zehar erabaki eta ebatziko dira.

Orientazio legez, protokoloak proposatzen Indarkeriaren Batzordeak honako kide hauek eratzea:



- 1 Herritarren Segurtasunerako Burua.
- 2 Aukera Berdintasunerako Teknikaria
- 3 Gizarte Langilea
- 4 Hezkuntza, Gazteria eta Emakumea Arloko ardura duen pertsona.

Bileren egutegiaz, maiztasunaz eta tratatu beharreko gaiez proposatu da Batzordea bera izatea, behin eratu ostean, gai horiek itxiko dituen arduradun politikoarekin aldez aurretik adostutakoan. Aurrerantzago, aurreikusita dago Batzordera kidetzea eta txertatzea Epaitegiko, Osasun Zentroko, Ertzaintzako eta Eskola Zentroetako ordezkariak.

Une oro, Datuak Babesteko Legea betetze aldera, datuak erregistratzeko eta beharrezko duten isilekotasuna emateko, espediente zenbaki baten bidez egingo da beti; hala ere, Jarraipen Batzordearekin koordinazioan lan egiteko eta etxeko tratu txarren biktima emakumeentzako harrera etxearen baliabidea ezarri eta aplikatu behar bada, horretarako sortutako Sarrera Batzordean, ezinbestekoa izango da kasu zehatz bakoitzean datu pertsonak osoak edukitzea.

ERABAKIA:

Onartzea Hezkuntza, Gazteria eta Emakumea Arloak prestatu duen indarkeriaren biktima emakumeen arreta hobetzeko Protokoloa.

Aldeko botoa: Arloetako Zinegotzi Ordezkariak, PPko ordezkaria eta Atxiki Gabeko Taldeko Zinegotzia; PSOE-EE alderdiko ordezkaria ez da bertaratu.

I. ERANSKINA. BIDLATZE-TXOSTEN EREDUA (Gizarte Zerbitzuen esparrua)

INFORMAZIO BILTZEKO EREDUA ETXEKO TRATU TXARRAK

Identifikazio-kodea:.....
 Profesionala:.....
 Erakundea:
 Senda Agiri Data / Alta Data:

Biktimaren datu pertsonalak

Izen – abizenak:.....
 NAN:
 Helbidea:
 Udalerria:
 Lurraldea:
 Harremanetarako helbidea (74) edo /
 (74) Helbide hori, bizi deneko helbidea ez den beste bat denean bakarrik adieraziko da.

SEXUA: Emakumea Gizona

Jaiotze-data:.....
 Jatorrizko herrialdea:
 Nazionalitatea:



Jatorrizko Lurralde Historikoa: Araba Bizkaia Gipuzkoa

EAEn erroldatuta data honetatik aurrera:

Udalerrian erroldatuta data honetatik aurrera.....

EGOERA ZIBILA:

- Ezkondua
- Dibortziatua. Ezkon-bikote ezeztatua.
- Banatzeko edo dibortziatzeko izapideetan
- Banandua (izatezkoa)
- Banandua (legez)
- Ezkongabea
- Batasun adostua, erregistroarekin.
- Batasun adostua, erregistrorik gabe.
- Alarguna.

IKASKETA-MAILA:

- Alfabetizatu gabe
- Oinarrizko ikasketak amaitu barik
- Oinarrizko ikasketen ziurtagiria/OHO titulurik gabe
- Eskola-graduatu/Oinarrizko Batxilergoa, errebalidarekin
- LH I (teknikari laguntzailea)/Ofizialtza industrial
- LH II (teknikari espezialista)/Maisutza industrial
- BBB/UBI/Unibertsitate aurrekoa/Goi-mailako Batxilergoa, errebalidarekin.
- 1. zikloko unibertsitate titulua (Diplomatura)
- 2. zikloko unibertsitate titulua (Lizentziatura)
- 3. zikloko unibertsitate titulua (Doktoradutza)

Bestelakoak. Zehaztu gabe:

OKUPAZIOA.

- Ez aktiboa
- Lanean, besteren kontura kontratu finkoarekin
- Lanean, besteren kontura aldi baterako kontratuarekin
- Lanean, besteren kontura kontraturik gabe
- Lanean, norberaren kontura, autonomia
- Lanean, norberaren kontura, soldatapeko beste pertsonak dituen enpresa
- Lanean, norberaren kontura, bazkide kooperatibista
- Lanean: lan babestua
- Langabezian, lehenengo lana bilatzen
- Langabezian, lehen lanean aritu dena

LANBIDEA:

- Artisautza eta lan kualifikatua industriatan
- Enpresen zuzendaritza eta Herri Administrazioak
- Administrazio-motako lanak
- Indar armatuak
- Instalazioetako, makineriako eta muntatze-lanetako langileak
- Lan kualifikatua nekazaritzan eta arrantzan
- Kualifikatu gabeko lana
- Ostalaritza-zerbitzuetako lana
- Teknikari profesional zientifiko eta intelektualak



- Teknikari edo profesional laguntzaileak
- Bestelakoak. Zehaztu:

ETXEBIZITZA-JABETZAREN ARAUBIDEA:

